



2022ko
San Fausto jaiak

HIZKUNTZAREN NEURKETA

AURKIBIDEA

1. Sarrera	2
2. Metodologia eta neurketaren lagina	3
3. Neurketaren emaitza orokorrak.....	4
3. 1 Jai Batzordeak antolatutako ekintzak	5
3. 2 Txosna Batzordeak antolatutako ekintzak	6
3. 3 Barrakak	8
4. 2019ko jaiekin konparaketa	9
4.1 Jai Batzordeak antolatutako ekintzen konparaketa	10
4.2 Txosna Batzordeak antolatutako ekintzen konparaketa	11
4.3 Barraketako ekintzen konparaketa	12
5. Balorazioa eta ondorio nagusiak	13
6. Datorren urteko jaietarako proposamenak	14
ERANSKINA: Behatutako ekintzen zerrenda	15

1. Sarrera

San Fausto jaietan ikusi eta bizi izan ditugun ekimenetan hizkuntzak sortutako kezkak bultzatuta, euskararen erabileraren neurketa egin genuen 2019. urtean lehenengoz. Pandemiaren eraginez bi urtez jairik gabe egon ondoren, aurten, 2022ko sanfaustoak aztertu ditugu txosten honetan. Uste dugu beharrezkoa dela San Fausto jaietan programatzen eta eskaintzen den egitaraua zein hizkuntzatan egin den aztertzen jarraitzea, datuak mahai gainean ipini, eta, aurrera begira, zer hobetu behar den zehaztea.

Azterketa honen helburua da datu zehatzak eman eta hurrengo urteei begira jaietan euskarazko eskaintza handitzea eta nagusi bilakatzea, Durangoko jaiak jai euskaldunak izan daitezen. Uste dugu euskarak merezi duen lekua behar duela Durangon –jaietan batez ere, jendeak momentu atseginak eta lagun-artekoak bizi dituen sasoia delako – eta hizkuntza gutxitua izanik, erabateko lehentasuna behar duela.

Horretarako, datu hauek emateaz gain, Berbaro Elkartea prest dago jaien antolakuntzan aritzen diren eragile, norbanako eta elkarteekin harremana egin eta laguntza emateko.

2. Metodologia eta neurketaren lagina

2022ko San Fausto jaietako bi asteburuetan (urriaren 11tik 16ra eta 21etik 23ra) programatu diren ekintza gehienak neurtzen saiatu gara, udaleko egitarau ofizialeko ekimen gehienak behatu ditugu, baita hortik kanpo dauden beste batzuk ere. Programatutako ekintzen % 83a neurtu dugu.

Oro har, ekimen jendetsuenak neurtu ditugu, eta guztiei garrantzia bera eman diegu. Parte hartzaile kopurua neurketatik kanpo utzi dugu.

Ekintza baten hizkuntza zehazterako orduan, lau elementu izan ditugu kontuan:

Aurkezpena: Saioak edo ekintzak aurkezpenik izan badu, norbaitek sarrera bat eman badio, hau, zein hizkuntzatan egin duten.

Ekintza: Zein den erabili den hizkuntza ekintzak berak hizkuntzarik izan badu.

Dinamizazioa: Zein hizkuntzatan zuzentzen zaizkien parte hartzaileei dinamizatzailerak edo lanean ari den jendea.

Euskarriak: Idatzizko euskarriak (kartelak, orriak, letreroak...) edo soinu-euskarriak (kuñak, musika...) egon badira, zein hizkuntzatan izan diren.

Ekintzak, oro har, euskaraz, erdaraz edo elebitan izan diren zehaztu dugu, lau elementu horiei erreparatuz, betiere jakinda batzuetan bata eta bestearen arteko mugak nahiko lausoak direla.

Erdaraz izan diren ekintzen baitan gazteleraz eta ingelesez (bakarra) egin direnak daude.


Guztira 103 ekintza behatu ditugu, ondorengo irizpide hauek kontuan hartuta:

- Hizkuntza duten jarduerak soilik hartu ditugu kontuan.
- Ekintza bera parte hartzekoa izan bada (lehiaketak, jolasak...), ez dugu parte hartzaileen hizkuntza erabilera neurtu, soilik antolatzaile eta dinamizatzaileena.
- Ekintza bat uneoro martxan egon bada, egunean behin egin izan balitz bezala hartu dugu kontuan (barrakak adibidez).


3. Neurketaren emaitza orokorrak

Aurten neurtutako 103 ekintzak bere osotasunean hartuta, hauek dira hizkuntzari dagokionez sanfaustoetako datuak: 55 ekintza izan dira euskaraz, 15 elebitan eta 33 erdaraz.

Datuak grafikoki adierazita:




Jaietako ekintza horiek arlo desberdinetan sailkatu ditugu, analisia sakonagoa egin ahal izateko. Hemen dago ikusgai 103 ekintza horiek zein motakoak izan diren:




Arlo horietako bakoitza banaka hartuz gero, hauek dira hizkuntzari buruzko datuak:

Musika:




Euskaraz 20 / elebitan 1 / erdaraz 17

Umeentzako ekintzak:




Euskaraz 21 / elebitan 4 / erdaraz 13

Ekitaldiak:




Euskaraz 3 / elebitan 0 / erdaraz 0

Lehiaketak:




Euskaraz 2 / elebitan 4 / erdaraz 0

Antzerkia:



Euskaraz 2 / elebitan 0 / erdaraz 1

Beste batzuk:




Euskaraz 21 / elebitan 4 / erdaraz 13

Ekintza horiek antolatzailearen arabera banatu ditugu, 2019an egin genituen moduan: alde batetik Jai Batzordeak eta Durangoko beste elkarte batzuek antolatutakoak, guztiak ere Jai Batzordeak onartuak eta programan sartutakoak; beste alde batetik, Txosna Batzordeak antolatutakoak; eta, azkenik, barrakak. Hauek dira hizkuntzari dagozkion datuak antolatzailearen arabera:

3.1 Jai Batzordeak antolatutako ekintzak


Guztira 71 ekintza antolatu dira Jai Batzordetik edo Jai Batzordearen txapelpean. Horietatik 37 izan dira euskaraz, 15 elebitan eta 19 erdaraz.

Datuak grafikoki adierazita:




Datu horiek horrela geratzen dira ekintza motaren arabera banatuta:

Musika:



Euskaraz 9 / elebitan 1 / erdaraz 12

Umeentzako ekintzak:




Euskaraz 9 / elebitan 1 / erdaraz 12

Ekitaldiak:




Euskaraz 2 / elebitan 0 / erdaraz 0

Lehiaketak:




Euskaraz 0 / elebitan 4 / erdaraz 0

Antzerkia:



Euskaraz 1 / elebitan 0 / erdaraz 1

Beste batzuk:




Euskaraz 5 / elebitan 6 / erdaraz 2

3.2 Txosna Batzordeak antolatutako ekintzak


Txosna Batzordeak antolatutako 23 ekintza hartu ditugu kontuan. Horietatik 18 izan dira euskaraz eta 5 erdaraz.

Modu grafiakoan adierazita:



Datu horiek ekintza motaren arabera banatuta:

Musika:



Euskaraz 11 / elebitan 0 / erdaraz 5

Umeentzako ekintzak:



Euskaraz 1 / elebitan 0 / erdaraz 0

Ekitaldiak:



Lehiaketak:



Euskaraz 1 / elebitan 0 / erdaraz 0

Euskaraz 2 / elebitan 0 / erdaraz 0

Antzerkia:

Beste batzuk:



Euskaraz 1 / elebitan 0 / erdaraz 0

Euskaraz 2 / elebitan 0 / erdaraz 0

3.3 Barrakak

Barraken neurketa egiteko, egun bakoitzeko ekintza bakar moduan zenbatu dugu. Hori horrela, 8 ekintza moduan hartu ditugu barrakak, eta guztiak erdaraz izan dira.

Modu grafikoan:




4. 2019ko jaietako datuekin konparaketa

Aurtengo jaien emaitzak azaldu ostean, interesgarria deritzogu 2019ko neurketarekin konparatzea, aldaketa nabarmenik egon den ikusi eta aldaketa horiek zein norabidetan izan diren ikusteko.


Soilik aldaketa nabarmena edo esanguratsua eduki dutenen datuak ipini ditugu, gainontzean datuak antzera geratu baitira.

2019 eta 2022ko egitarau osoak konparatuta, grafiko honetan ikusi daiteke aldea:




Musika eta umeen arloan ere konparaketa egin dugu, datuak esanguratsuak direlako:

Musika:




Umeentzako ekintzak:



Ikusten denez, euskarazko ekintzek nabarmen egin dute gora. Igoera hori nondik datorren aztertzeko, hurrengo ataletan daude ikusgai antolatzaileen arabera datu zehatzagoak.

4.1 Jai Batzordeak antolatutako ekintzen konparaketa


Jai Batzordeak edo Jai Batzordearen txapelpean 2019an eta 2022an antolatutako ekintzen alderaketa orokorra eginda, horrela geratu dira datuak:



Hemen ere musika eta umeen arloko ekintzen konparaketa egin dugu, horiek direlako esanguratsuenak eta alde nabarmenena dutenak:

Musika:

Umeentzako ekintzak:




Grafikoetan argi ikusten den moduan, musika arloan euskarazko ekintzen igoera egon da, baina bereziki nabarmena da umeentzako ekintzetan eman den jauzia, euskarazko ekintzen ehunekoa hirukoiztu baita.

Datu orokorretan euskarazko ekintzek izan duten igoera Jai Batzordetik egin den euskarazko ekintzen igoerak eragin du, maila oso handi batean.


4.2 Txosna Batzordeak antolatutako ekintzen konparaketa

Kasu honetan, Txosna Batzordeak 2019an eta 2022an antolatutako ekintzen alderaketa orokorra eginda, hauek dira datuak:



Musika arloa ez beste guztia euskara hutsean izan da aurten zein 2019an, beraz, musikari dagokiona alderatu dugu bakarrik:


Musika:



Hemen ere 2019ko datuekin alderatuta igoera nabarmena egon dela ikusi daiteke, batez ere musika eskaintzari dagokionez.

4.3 Barraketako ekintzen konparaketa

Hemen argi ikusten da emaitzetan ez dela ezer aldatu:



Dena dela, emaitzetan gauzek berdin jarraitu badute ere, aipatzekoa da 2019an musika guzti-guztia izan zela erdaraz, eta aurten kanta batzuk euskaraz sartu dituztela. Barraketako prezioen kartelak ere euskaraz ipini dituzte aurten. Ez da nahikoa izan orokorrean erdaraz egindako ekintza moduan ez sailkatzeko, baina aipagarria da eman den aurrerapauso txiki hori, arlo honetan ere.

5. Balorazioa eta ondorio nagusiak

Emaiza horiek ikusita, Berbaro Elkartetik hau da egiten dugun balorazioa:

- Jai Batzordeak antolatutako ekintzetan oso jauzi positiboa eman dela uste dugu, euskarazko ekintzen igoera nabarmenena hor eman baita. Euskarazko ekintzak erdaraz edo elebitan antolatutakoak baino gehiago izan dira. 2019ko datu txarrei buelta bat ematea lortu da, eta zoriontzekoa da hori.
- Txosna Batzordeak antolatutako ekintzetan ere euskarazko programazioa apur bat igo da, baina benetan esanguratsua dena da urtez urte egitarau ia guztiz euskalduna antolatzen duela, eta hori ere zoriontzekoa da, arlo honetan Txosna Batzordea erreferentea delako.
- Umeentzako antolatutako ekintzetan eman da igoera handiena euskarari dagokionez. Pozgarria da, baina gogoratu beharra dago 2019ko datuak oso txarrak izan zirela. Arlo honetan lanean jarraitu behar dela uste dugu, umeentzako programatutako guzti-guztia euskaraz izan dadin.
- Bilakaera bide onean doa, eta txalotzekoa da hori horrela izan dadin egin den lana. Dena dela, bidea egiten jarraitu behar da hizkuntzaren arloan aurrerapausoak ematen jarraitzeko.

6. Datorren urteko jaietarako proposamenak

Hona hemen 2023ko San Fausto jaietara begira bai Jai Batzordeari bai beste eragileei luzatzen dizkiegun proposamenak:

- Udalaren partetik barraketan aurrerapauso batzuk eman badira ere, uste dugu hizkuntzari dagokionez baldintza zehatzak ezarri behar direla barrakak ipini ahal izateko, batez ere musikaren hizkuntzari dagokionez. Beste herri batzuetan egiten den moduan, barraketako musika zein izan behar den Udalak ezartzea oso eraginkorra izango litzateke.
- Umeentzako diren beste ekintza batzuetan, ekintza aurrera eramateko kontratatuko den enpresari euskarazko begiraleak ipini ditzaten exijitzea. Horretarako aukerarik ez badute eta ekintza hori enpresa horrek bakarrik egin ahal badu (zaldi eta ponietan, adibidez), horien osagarri izango diren beste begirale euskaldun batzuk kontratatzea.
- Ekitaldi publiko eta lehiaketa gastronomikoetan elebitasunetik urrundu eta euskarari zentraltasuna ematea. Horrelako aisialdiko ekintzetan euskara bakarrik erabiltzeak lotura positiboa sortu eta hizkuntza pedagogia egin dezake.

Amaitzeko, uste dugu euskarazko programazioan aurrerapausoak egiten jarraitu behar dela. Euskara hizkuntza gutxitua izanik, euskara lehenetsi eta Durangon jai euskaldunak egin behar dira, behaketetan argi ikusi baitugu euskara hutsez egin diren ekintza gehienetan euskara ulertzen ez zuen jendeak ere ez duela arazorik izan bertan parte hartu eta ondo pasatzeko.

Berbaro Elkartea prest dago jaien antolakuntzan murgiltzen diren batzorde, elkarte eta taldeekin elkarlana egin eta behar duten laguntza emateko.

ERANSKINA: Behatutako ekintzen zerrenda

Hemen daude ikusgai behatu ditugun 103 ekintzak, eta euretako bakoitza oro har zein hizkuntzatan izan den:

Ekintza	Sailkapena	Antolatzailea	Hizkuntza
BARRAKAK	Umeak	BARRAKAK	Erdaraz
Txupinazoa txosnetan	Ekitaldia	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
Kontzertua Txosnetan: KONORTE	Musika	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
Kontzertua Txosnetan: PARKATU	Musika	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
Kontzertua Txosnetan: PENNYFLECK	Musika	TXOSNA BATZORDEA	Erdaraz
Kontzertua Txosnetan: LARU	Musika	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
BARRAKAK	Umeak	BARRAKAK	Erdaraz
Txupinazoa udaletxeko plazan	Ekitaldia	JAI BATZORDEA	Euskaraz
DIENTES DE LUNA kontzertua Andra Marin	Musika	JAI BATZORDEA	Elebitan
EGAN kontzertua Ezkurdin	Musika	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Dj MARATOI HERRIKOIA	Musika	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
BARRAKAK	Umeak	BARRAKAK	Erdaraz
Paella Txapelketa San Fauston	Lehiaketa	SAN FAUSTO ZENTRO SOZIALA	Elebitan
Txikientzako haur parkea Barandiaran kalean	Umeak	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean	Umeak	JAI BATZORDEA	Elebitan
Haurrentzako jolas gunean txosnagunean	Umeak	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
Meza nagusia San Fausto elizan	Besteak	JAI BATZORDEA	elebitan
Paella txapelketa	Lehiaketa	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
Zirkua eta antzerkia (UP!!!) Ezkurdiko kioskoan	Umeak	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Haur parkea Barandiaran kalean	Umeak	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Erreka jaitsiera Tabiratik hasita	Besteak	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
Txokolatada eta haur jolasak San Fauston	Umeak	SAN FAUSTO ZENTRO SOZIALA	Erdaraz
Yllana antzerkia San Agustinen	Antzerkia	JAI BATZORDEA	Erdaraz
KAI NAKAI Andra Mariko elizpean	Musika	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Haurrentzako arrantza txapelketa Pinondon eta San Agustinen	Umeak	EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEA	Erdaraz
BARRAKAK	Umeak	BARRAKAK	Erdaraz
Haur parkea Ibaizabal parkean	Umeak	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Zirko tailerrak Andra Marin	Besteak	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Mugikortasun jolasak Intxaurren	Besteak	JAI BATZORDEA	Elebitan
“HEMENDIKARA” zirku eta antzerkia Aurora Abasolo parkean	Antzerkia	JAI BATZORDEA	Euskaraz
MOTXAILA BAND elektrotxaranga kalez kale	Musika	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Antzerkia eta bertsolariak txosnetan	Antzerkia	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
AINKE Andra Mariko elizpean	Musika	JAI BATZORDEA	Euskaraz
ALERTA Andra Mariko elizpean	Musika	JAI BATZORDEA	Erdaraz
Bertsolariak San Agustinen	Besteak	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Kontzertua Txosnetan: AÑUBE	Musika	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
Kontzertua Txosnetan: VULK	Musika	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
Kontzertua Txosnetan: ZOPILOTES TXIRRIAOS	Musika	TXOSNA BATZORDEA	Erdaraz
GANSOS ROSAS Ezkurdin	Musika	JAI BATZORDEA	Erdaraz
BARRAKAK	Umeak	BARRAKAK	Erdaraz
Sukalki txapelketa Landako Gunean	Lehiaketa	JAI BATZORDEA	Elebitan
Txikientzako haur parkea Barandiaran kalean	Umeak	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean	Umeak	JAI BATZORDEA	Elebitan

Umeentzako Goitiberen Jeitsiera probak Tabira auzoan	Umeak	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Txupinazo txikia LANDAKO ESKOLAREN eskutik udaletxe plazan	Ekitaldia	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean	Umeak	JAI BATZORDEA	Euskaraz
I. Goitiberen Jeitsiera Tabira auzoan	Besteak	JAI BATZORDEA	Elebitan
Musika animazioa STRAGOS DJarekin Landako Gunean	Musika	JAI BATZORDEA	Erdaraz
Bingo Musikatua	Besteak	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
Haurrentzako bitsa jaia Murueta Torre auzoan	Umeak	MURUETATORRE AUZO ELKARTEA	Euskaraz
TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON Santa Ana plazan	Umeak	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Karropoteo transmaribiboltoa Pinondotik	Besteak	KUIR EZTANDA	Euskaraz
Kantu jira alde zaharretik: BENTAZAHARREKO MUTIKO ALAIK	Besteak	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Musika a capella: GOLDEN APPLE QUARTET	Musika	JAI BATZORDEA	Erdaraz
AZABACHE orkestra Madalena auzoan	Musika	JAI BATZORDEA	Erdaraz
DJ HIJA DEL NOPAL	Musika	TXOSNA BATZORDEA	Erdaraz
DJ TXILLARDEGI	Musika	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
ZEA MAYS Ezkurdin	Musika	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Drogen inguruko stand informatiboa txosnetan	Besteak	DMA	Elebitan
BARRAKAK	Umeak	BARRAKAK	Erdaraz
Txikientzako haur parkea Barandiaran kalean	Umeak	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean	umeak	JAI BATZORDEA	Elebitan
Jolas eguna Madalena	Umeak	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Ping-pong txapelketa San inazio parkean	Lehiaketa	AUZO ALAI ELKARTEA	Elebitan
3*3 saskibaloi txapelketa San inazio parkean	Lehiaketa	AUZO ALAI ELKARTEA	Elebitan
Poniak eta zaldiak Landako Guneko parkean	Umeak	JAI BATZORDEA	Erdaraz
LUHARTZ Ezkurdin	Musika	JAI BATZORDEA	Euskaraz
LOS 5 BILBAINOS Andra Mariko elizpean	Musika	JAI BATZORDEA	Erdaraz
ZIRKINIK BEZ taldea Otamotzena parkean	Musika	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Haurrentzako ikuskizuna IRATXOEN KANTU SEKRETUA Andra Mariko elizpean	Umeak	JAI BATZORDEA	Euskaraz
INÉDITAS kontzertua Musika eskolan	Musika	JAI BATZORDEA	Erdaraz
LUHARTZ Ezkurdin	Musika	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Umore ikuskizuna GURUTZE BEITIA eta GORKA AGINAGALDEekin	Besteak	JAI BATZORDEA	Erdaraz
BARRAKAK	Umeak	BARRAKAK	Erdaraz
Jolas eguna San Fausto auzoan	Umeak	JAI BATZORDEA	Euskaraz
“White Botton” ohe elastikoen ikuskizuna Aurora Abasolo parkean.	Besteak	JAI BATZORDEA	Erdaraz
Tortilla txapelketa txosnagunean. 20:00etan sari banaketa	Lehiaketa	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
Ikuskizuna: BART SAX Andra Mariko elizpean	Musika	JAI BATZORDEA	Euskaraz
PEIO ETA ITSUA	Musika	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
J MARTINA	Musika	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
MERINA GRIS	Musika	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
LA CASA AZUL kontzertua Ezkurdin	Musika	JAI BATZORDEA	Erdaraz
BARRAKAK	Umeak	BARRAKAK	Erdaraz
Umeentzako tailerrak PANPOTX taldearekin Andra Mariko elizpean.	Umeak	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Txikientzako haur parkea Barandiaran kalean	Umeak	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean	Umeak	JAI BATZORDEA	Euskaraz
XAIBOR disko-festa Ezkurdin	Umeak	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Txikientzako haur parkea Barandiaran kalean	Umeak	JAI BATZORDEA	Euskaraz

DANTZA ikuskizuna "GAZTE" Aurora Abasolo parkean.	Besteak	JAI BATZORDEA	Euskaraz
KALEJIRA DJ REIMY Txosnagunean hasita	Musika	TXOSNA BATZORDEA	Erdaraz
Mozorro desfilea eta sari banaketa Andra Marin	Besteak	JAI BATZORDEA	Elebitan
AICE DJ-a Andra Marin	Musika	JAI BATZORDEA	Erdaraz
DIAMANTE orkestra Ezkurdin	Musika	JAI BATZORDEA	Erdaraz
DJ REIMY txosnetan	Musika	TXOSNA BATZORDEA	Erdaraz
DJ BEÑAT ETA MAIXA txosnetan	Musika	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
AICE DJ Andra Mariko elizpean	Musika	JAI BATZORDEA	Erdaraz
Alkoholemia kontrolaren stand inform. txosnetan	Besteak	DMA	Elebitan
BARRAKAK	Umeak	BARRAKAK	Erdaraz
Txikientzako haur parkea Barandiaran kalean	Umeak	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean.	Umeak	JAI BATZORDEA	Elebitan
Jolas eguna Tabira parkean.	Umeak	JAI BATZORDEA	Euskaraz
Poniak eta zaldiak Ibaizabal parkean.	Umeak	JAI BATZORDEA	Erdaraz
MARIATXI INTERNACIONAL DE MEXIKO Andra Mariako elizpean	Musika	JAI BATZORDEA	Erdaraz